



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 11

23. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, gure erkidegoan iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurkako borrokan garatu beharreko politikari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekursoak direla-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaien ondoren Nafarroako Gobernuak baliatuko duen hizkuntz politikari buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2030 Agendaren ezarpenean buru izan dadin. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruzur Fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, Iruzur Fiskalaren Behatokia sortu ahal izateko. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea bultza dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritar guztien hizkuntz eskubideak defenda ditzan. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar diezaion, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte. Mozioa erretiratzea (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraztearen aldeko Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Atarrabiako herriaren ordezkari demokratiko bati urriaren 5ean –larunbata– egindako erasoak. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Nafarroako Parlamentuak Guardia Zibilak Nafarroan egiten duen lana aitortu eta eskertzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarritzko arauak ezartzen dituen eta eskualdeko nahiz tokiko gazteriaren kontseiluen printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (13. or.).

—Galdera, Altsasun erasoak pairatu zuten guardia zibilekin edo haien bikotekideekin izandako kontaktuei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (14. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentuek hitz egiteko moduari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).

—Galdera, Mendabiako urrezketak-eremu osagarriari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15. or.).

—Galdera, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).

—Galdera, Aresoko Eluseder industrialdeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).

—Galdera, Imarkoango ordainlekuan bidesaria aldi baterako eteteagatik Audenasari ordaindutako dirukopuruari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).

—Galdera, Zidakos ibaiak 2019ko uztailearen 8an gainezka egitean N-121 errepidean Puiu parean eragindako kalteei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).

—Galdera, Tafalla-Iruña tartean bidesaria aldi baterako etetearen amaiera jakinarazteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).

—Galdera, europar kastoreak Nafarroako ekosisteman duen eraginari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, 109/2017 Foru Dekretua dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2019ko irailaren 27an emandako epaiek ukituko dituzten oposizio-lehiaketei eta lekualdatze lehiaketei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (20. or.).

—Galdera, Erronkariko haur eskolarako hezitzaile bat lanaldi erdian kontratatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (21. or.).

—Galdera, lehenbiziko kontsultako itzarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak ezarri asmo dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—Galdera, N121A errepideko Sunbillako bidegurutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2019ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2019ko azaroaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, gure erkidegoan iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurkako borrokan garatu beharreko politikari buruzkoa.

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkezturiko interpelazioa, gure erkidegoan iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurkako borrokan garatu beharreko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroan 2006tik 2016ra bitarteko iruzur fiskalaren diagnostikoa eta ezkutuko ekonomiaren balioespena egiten duen azterlanaren arabera – azterlana Iruzur Fiskalaren aurkako Batzordean ezagutzera eman da–, foru erkidegoan 500 milioi euro inguru geratzen dira urtero bildu gabe, foru erkidegoaren diru-kutxa astintzen duen arazo horren ondorioz. Halatan, azterlanak dio 2008tik 2016ra bitarte 5.700 milioi euro baino gehiagoko galera izan dugula guztira.

Datu horien tamainak erakusten du ezkutuko ekonomiak eta iruzur fiskalak ondorioak dauzkate la nafarren errentan, urtean 850 euro inguru gehiago ordaintzen ari baitira zergetan eta kotizazioetan.

Horregatik guztiagatik, honako interpelazio hau aurkeztu diogu Nafarroako Gobernuari, jakiteko ez zer politika garatuko duen gure erkidegoan iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurka borrokatzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Interpelazioa, 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioak direla-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaien ondoren Nafarroako Gobernuak baliatuko duen hizkuntz politikari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko interpelazioa, 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioak direla-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaien ondoren Nafarroako Gobernuak baliatuko duen hizkuntz politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Interpelazioa, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskaren erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioak direla-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaien ondoren Nafarroako Gobernuak baliatuko duen hizkuntz politikari buruzkoa.

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2030 Agendaren ezarpenean buru izan dadin.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2030 Agendaren ezarpenean buru izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorri Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2030 Agendaren ezarpenean buru izan dadin.

Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda izeneko dokumentua 2015ean onetsi zuen Nazio Batuen Erakundeak, pobrezia amaiara emateko, desberdintasunen eta pobreziaaren kontra borrokatzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko asmoz 2030. urtea iritsi baino lehen lortu beharreko helburuak ezartzen dituena. Orain dela gutxi –irailaren 25ean– lau urte bete ziren 193 herrialdek –besteak beste, Espainiak– 2030 Agendarekiko konpromisoa hartu zutenetik. Agendak 2030ean erdietsi beharreko “Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH)” zehaztu zituen. 17 helburu eta 169 jomuga dira, pobrezia funtsezko zergatiak eta pertsona guztientzako garapen-premia unibertsala jorratzen dituztenak. Aurretik beste zenbaitetan planteatutako garapen-helburuen aldean, hauek unibertsalak dira eta herrialde garatuei zein garatzeko bidean direnei eragiten diete, izaera integratu eta banaezinekoak dira eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak biltzen dituzte: ekonomia, gizarte eta ingurumena.

Nafarroan, Parlamentuak 2016an erabaki zuen politika publikoek GJHein eta horien jomugekin bat egin dezaten bultzatzea; hartara, Nafarroako Gobernuak departamentuen arteko batzorde bat sortu zuen, Eskubide Sozialetako Departamentuak gidatuta, zeinak Ekintza Plan bat eta “Politika Publikoen Bat-egitea” izeneko txostena taxutu baitzuten.

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernu hau zeharo kontzientziaturik dago 2030 Agendarekin, eta aurretiazko lan hori guztia bildu du, baina beharrezkoa da aurrera egitea gizarte aldatzeko eta etorkizunera egokitzeko. Egindako lana gorabehera, erakunde guztiak inplikatu beharra dago gure gizartearen transformazioan, inor a-

tzean utziko ez duen etorkizuna eraikitzean. Une erabakigarria bizi dugu 2030ean garapen jasangarriko helburuak erdiesteko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2030 Agendaren garapen jasangarriko helburuak eta jomugak betetzen jarrai dezan zeharkako izaeraz, eta agenda hori erakundeen mailarik gorenean koka dezan, halako moduan non Nafarroako Gobernuko lehendakaria izan baita 2017an eraturako departamentuen arteko batzordearen burua eta Lehendakartzako Departamentua batzorde exekutiboan sar dadin, inplementazioa betetzen dela koordinatzeko eginkizunekin, zeharkako izaera hori bermatzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du GJHen lorpenean buru izan dadin, gizartearen egiazko transformazioa ekarriko duten eta egungo nahiz etorkizuneko erronkei bermeekin aurre egitea ahalbidetuko duten politika publiko aitzindariak eginez. Aitzindariak hori oinarri, gizarte zibileko erakundeekin batera lan egingen du Nafarroako erakunde guztiek nola enpresa-, gizarte- eta toki-sareak ezagutu eta jorra ditzaten 2030 Agendaren 169 jomugak eta Nafarroa 2030 Agenda betetzearen buru jarriko duten politikak egin ditzaten.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren gara dezan, bere ekintza planean bertan jasotzen den bezala, 2030 Agendaren komunikazio eta hedapen plan bat, erabakitasunez bultzatuko duena “Jasangarritasunaren Kultura” nafarren artean. Plan horren barruan egon beharko du eraikitako Visor Web-en hedapena, herritar guztiek kontsultatu ahal izan ditzaten datuak, garapen jasangarriko helburuak betetzeari dagokionez.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Eleduna: Ramón Alzorri Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Iruzur Fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, Iruzur Fiskalaren Behatokia sortu ahal izateko.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Iruzur Fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, Iruzur Fiskalaren Behatokia sortu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

Iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka izan behar du Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoko gainontzeko erakundeen helburu nagusietako bat, orokortasun, berdintasun eta justiziako zerga-printzipioak bete daitezten.

Iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legeak ezartzen du lan-batzorde iraunkor bat eratu behar dela iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka ebaluatuko duena.

Nafarroako Gobernuaren 2016ko maiatzaren 11ko erabaki baten bidez eratu zen Iruzurraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko Batzordea eta onetsi ziren horren funtzionamendu-arauak.

Batzorde horren eginkizunak dira, bere funtzionamendu-arauen 3. atalaren arabera:

a) Nafarroako Gobernuak iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren kontra borrokatzearen arloan egindako jarduketak aztertzea.

b) Iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren kontra borrokatzeko planei eta programei buruzko informazioa jasotzea.

c) Jarduketa planen eta hartutako neurrien jarraipena egitea.

d) Bere eskumen esparruan proposamen ez lotesleak egitea.

Nafarroako Gobernuak, iragan legegintzaldian, NUPeko ikertzaile-talde bati agindu zion “Nafarroan 2006tik 2016ra bitarteko iruzur fiskalaren diagnostikoa eta ezkutuko ekonomiaren balioespena egiten duen azterlana” egin zezan.

Azterlana jada aurkeztu da Iruzurraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko Batzordean. Iruzur fiskala murrizteko proposamenen artean, honako hau jasotzen da 7.3 atalean (Ikuskaritza eta egiaztatze zereginetara dedikatutako langileen gaineko neurriak):

“Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea. Behatokia Administrazio Publikoarekiko independentea izan liteke, eta Nafarroan zerga nagusietako iruzurraren balioespena aldiro gaurkotuta edukitzeko konpromisoa hartuko luke. Komenigarria izanzen litzateke arduratzea iruzurra koantifikatzeaz, iruzurraren kontrako neurriak proposatzeaz eta ebaluatzeaz, eta abar. Halaber, beste autonomia erkidego batzuetan iruzurrak zertan den konparatuko luke, nazioarteko esperientzia gertutik jarraituko luke eta urteko txosten bat aurkeztuko lioke iruzur fiskalaren kontrako borrokarako Nafarroako Parlamentuko batzordeari”

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igor dezan Legebiltzar honetara, sei hilabeteko epean igorri ere. Proiektuan, “Nafarroan 2006tik 2016ra bitarteko

iruzur fiskalaren diagnostikoa eta ezkutuko ekonomiaren balioespena egiten duen azterlana” izenean jasotako gomendioei jarraikiz, Iruzur fiskalaren Behatokia eratzea jasoko da, eta hori ez da Iruzuraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko Batzordea mantentzeko eragozpen

izanen; hartara, horren eginkizunak birdefinituko dira eta are Behatokiaren baitan sartuko da batzorde gisa.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea bultzatuz.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea bultzatuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea bultzatuz.

Nafarroako Gobernuak, “Nafarroan 2006tik 2016ra bitarteko iruzur fiskalaren diagnostikoa eta ezkutuko ekonomiaren balioespena egiten duen azterlana” ezagutarazi du. Azterlanetik heldu diren ondorioen arabera, “Nafarroan ezkutuko ekonomiaren batez besteko historikoa % 13,79koa da, eta azken urteotan murriztuz joan da, 2016an % 10,40koa izateraino. Azterlanak dioenez, ezkutuko

ekonomiarik egonen ez balitz, Nafarroan per capita errenta 30.158 eurokoa izatera iritsiko zen 2016an, 444 euro datu errealetik goiti. Iruzur fiskalak, berriz, 541 milioi euro murriztu omen du diru-bilketa; hortaz, foru erkidegoko biztanle bakoitza zergetan eta kotizazioetan 848 euro gehiago ordaintzen egonen litzateke urtean, zerga-betetze egoera batean legokiokeenaren aldean”.

Azterlanak orobat biltzen du gomendio-sorta bat; esate baterako, gobernuaren kalitatea hobetzera bideratutako neurriak, hezkuntza arloko neurriak, ikuskaritzara dedikatzen diren langileei buruzkoak, zergen diseinuari buruzkoak edo ezkutuko ekonomiaren eta iruzurraren zenbatespena hobetzeko proposamenak.

Iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurkako borroka hitz egitean ez da erraza lehentasun-hurrenkera bat ezartzea egoera hori arintzen lagunduko duten neurriei dagokienez, denak direlako garrantzitsuak eta, halere, litekeena da aski ez izatea. Azterlanak planteatzen duen neurrietako bat da “Iruzur fiskalaren Behatokia” sortzea, Nafarroan iruzurraren balioespena aldiro gaurkotuta edukitzera konprometituko dena, iruzurra zenbatesteko, arazo horri aurre egiteko neurriak proposatzeko eta ebaluatzeko eta urteko txosten bat aurkezteko.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun talde parlamentariook honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egin beharreko izapideak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur fiskalaren Behatokiaren sorrera bultzatzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritar guztien hizkuntz eskubideak defenda ditzan.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita herritar guztien hizkuntz eskubideak defenda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile denak, Ganberaren araudiari jarraiki, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Urriaren 1ean eta 2an ezagutu genituen Nafarroako administrazioan euskararen erabilera arautzeko 103/2017 Foru Dekretuaren inguruan Nafarroako Auzitegiak emandako epaiak.

Helegiteak jarri zituzten sindikatuek eskatutakoa osotara ontzat hartu ez arren, dekretuaren hainbat atal indargabetu ditu Auzitegiak. Alde batetik, Nafarroako eremu "misto" eta "ez-euskaldunean" euskara meritu gisa baloratzeko dekretuak egiten zuen proposamena bertan behera utzi du.

Beste aldetik, administrazioak zerbitzu zentralen bitartez herritar guztientzat edo populazioarentzat orokorrean egin behar dituen komunikazio, jakinarazpen, inprimakietan, errotuluak eta abar ele-bietan egin beharra ere auzitan jarri du. Urrats bat izan zitekeena, alegia, populazio osoaren

hizkuntza eskubideak errespetatzea, indargabetu egin du.

Gure ustez, atzerakada nabarmena da nafar hizkuntza eskubideetan eta nafar guztion den hizkuntzaren sustapen eta aurrerabidean. Indarrean dagoen Euskararen Legeak berak ere helburu jartzen duen sustapen politikaren kontrako epaia dela deritzogu, ikuspegi erabat murriztaile ezarri duelako. Horrexegatik, ezinbestekoa deritzogu une honetan bere burua "aurrerakoitzat" duen Nafar Gobernuak herritar guztion eskubideak defendatzea, bereizkeriarik gabe eta ikuspegi murriztaileak alde batera utzita.

Horrekin batera, epaia emandakoan agerian geratu da zonifikazioak indarrean jarraitzen duen bitartean, ezinezkoa izanen dela dekretu bidez nafar euskaldun guztion hizkuntza eskubideak bermatzea. Hori dela eta, hau da unea eztabaida hau berriz ere mahaigaineratzeko eta Nafarroako biztanle guztion hizkuntza eskubideak lege bidez babestu eta ziurtatzeko bidea egiteko behingoz, bereizkeriarik gabe.

Hau guztia dela eta, honako ebazpen proposamena proposatu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernua premiatzen du hizkuntza eskubideetan ere, legegintzaldi honetarako akordio programatikoak aldarrikatzen duen "kohesio soziala" eta "lurralde kohesioa"-ren alde egin dezan, herritar guztion hizkuntza eskubideak defendatuz, eta ildo horretan, 103/2017 Foru Dekretuaren kontrako epaia-aren aurkako helegitea aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernua premiatzen du euskararen ezagutza beste hizkuntzen ezagutza baino gutxiago inoiz ez baloratzeko erabakia hartzera, eta horrek behar duen euskarri juridikoa ematera.

3. Nafarroako Parlamentuak bere disposizioa agertzen du herritar guztion eskubide berdintasuna bermatu eta zonifikazioa gaindituko duen euskararen lege berria onartzeko lan egitera.

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar diezaion, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkezturiko mozioa erretiratu duela. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar ziezaion, harik

eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte, eta 2019ko irailaren 13ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna-ekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du:

Pobrezia eta Desberdintasunaren aurkako Nafarroako Itun berri bat gara dezan 2020ko urriaren 17rako, data horretan Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzen baita.

2007. urtean sinatutakoa berri eta gaurkotu duen itun bat, zeinean honako hauek jasoko baitira:

1. Bada agindu etiko, sozial, politiko eta ekonomiko bat, pobrezia desagerrarazteko helburua lortzeko eta gizarte-kohesioa lortzeko.

2. Estatua 2030eko Agendari eta Garapen Jasangarriko Helburuak garatzeari atxikitzea adostasun politiko eta sozialeko osagai sendo bat da pobrezia eta desberdintasuna desagerrarazteko, bai herrialde txirotuengan, bai gure ingurunean, eta helburu horiek beteko direla bermatzeko nazioarteko erkidegoak ahalegin etengabea egin behar duela.

3. Nafarroako Gobernua agendari eta haren helburuak betetzeari atxiki zitzaion urte bereko

apirilean, hura betetzeko behar zen ahalegina babesteko konpromisoarekin.

4. Ekonomia solidarioa –zeinak bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, enpresa solidarioak eta finantza solidarioak jasotzen baititu– Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeari begira beharrezkoa den eredu baten gisa planteatzea, eta bazterkeriaren nahiz pobrezia zergatien aurkako borrokan parte hartzen du, garapen iraunkor bat sustatuz eta gaurko nahiz etorkizuneko belaunaldien beharrezkoak jasoz.

5. Nafarroako botere publiko eta eragile politiko eta sozial guztien erantzukizuna da pertsona guztien eskubideen legitimazioa indartzea eta lortzea Nafarroan aporofobiarik ez gertatzea. Eta kohesio sozial handiagoak eskatzen du, aldi berean, pobrezia eta gizarte bazterketa desagerrarazteko politika publikoak, ukitutako dimentsio guztiak jasoko dituzten politika eraginkorrak sustatuz (etxebizitza, osasuna, enplegua eta prestakuntza, hezkuntza, haurtzarora eta gazteria...), eta baliabideak direla-eta behar adinako eta beharrezkoa den zuzkidura edukiz.

6. Ahalegin solidario hau garatzen duen esparru instituzional eta politikoa hainbat legegintzalditan egindako lanaren fruitu eta herritarren ondare komuna da, akordio politikoaren eta herri-

tarren mobilizazioaren fruitu. Hori dela-eta, iraganen hartutako konpromisoak gaurkotu beharra dago konpromiso horiek egiaz bete daitezen eta errealitate politiko eta sozial berrien argitara aragotu daitezen. Borondate hori Pobreziaren eta Desberdintasunaren aurkako Nafarroako Ituna gaurkotuz gauzatu behar da, ulerturik lankide-

tzarako politika eta gizarte-politikak ezin direla interes partidisten mende egon” (10-19/DEC-00061).

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Atarrabiako herriaren ordezkari demokratiko bati urriaren 5ean –larunbata– egindako eraso.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Gaitzestea ezker abertzaleko kideek Atarrabia herriko ordezkari demokratiko bati egindako eraso faxista, bere karguari zegozkion zeregine-tan ari zela, eta gertakari horien biktimari erreko-nozimendua, babesa eta bultzada helaraztea udalean lanean jarrai dezan, balore demokratikoak aldeztuz balore totalitarioen aurka.

2. Errefusatzea erakundeak eta jai-ekitaldiak erabil daitezela terrorista zigortuei babesa emateko mezuak erakusteko, bizikidetzaren aurkako ekintzak baitira.

3. Egitateei buruzko ikerketa zorrotza eskatzea, jakite aldera udaleko segurtasun-arduradunek betebeharren ez-betetzetik egin ote zuten, egitateak saihesteko jarduketa egokiak ez egiteagatik” (10-19/DEC-00062).

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Nafarroako Parla- mentuak Guardia Zibilak Nafarroan egiten duen lana aitortu eta eskertzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortu eta esker-tzen du Guardia Zibilak Nafarroako Foru Komunitatean egindako lana.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du ETA banda terroristaren atentatuak gaitzesten dituela —haien helburu nagusia izan ziren ere Guardia Zibileko kideak eta haien senideak—, eta atentatu horien biktimekiko elkartasuna adierazten du.

3. Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du beharrezkoa dela Guardia Zibila Nafarroan egon dadila, eta hori aldeztu du. Nafarroako

Parlamentuarentzat guardia zibil bakar bat ere ez dago sobran Nafarroan.

4. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Nafarroako herritarrei urriaren 12ko ospakizune-tan parte har dezaten. Pilareko Ama Birjinaren jaia, Espainiako jai nazionala, Hispanitatearen eguna eta Guardia Zibilaren Zaindariaren eguna baita.

5. Erabaki hau igorriko zaie Iruñeko Guardia Zibilaren Komandantziari, Barne Ministerioari, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari, Nafarroako Gobernuari eta hedabideei” (10-19/DEC-00063).

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak ezartzen dituen eta eskualdeko nahiz tokiko gazteriaren kontseiluen printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektuari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak ezartzen dituen eta eskualdeko nahiz tokiko gazteriaren kontseiluen printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Idazkaritza Tekniko Nagusiak gabeziak detektatu ditu Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko antolakuntzaren eta funtzionamenduaren oinarrizko arauak ezarri eta gazteriaren eskualde- eta toki-kontseiluak arautzen dituzten printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektuan, halako moduan non apirilaren 1ean eten egin baitzen horren izapidetzea. Zer gabezia dira horiek? Zer epe aurreikusten ditu departamentuak dekretu horren tramitazioari berriro ekiteko?

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Altsasun eraso pairatu zuten guardia zibilekin edo haien bikotekideekin izandako kontaktuei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Altsasun eraso pairatu zuten guardia zibilekin edo haien bikotekideekin izandako kontaktuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Justiziako kontseilari zaren aldetik inolako kontakturik izan al duzu, edo izaten saiatu zara, Altsasun eraso pairatu zuten guardia zibilekin edo haien bikotekideekin?

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroako Gobernuo departamentuez hitz egiteko moduari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuo departamentuez hitz egiteko moduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko Foru Legearen 39. eta 41. artikuluetan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernu departamentutan banatuta dago, eta horietako bakoitzaren buru izanen da kontseilaria.

Halere, aldiro ikusten ari gara Nafarroako Gobernuo kideek departamentuez hitz egiten dutenean "sail" terminoa erabiltzen dutela, baina hori ez dagokio foru erkidegoko gobernu-egiturari; horren eraginez, hedabideetan ere erabiltzen dute kontzeptu hori.

Hori dela-eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehendakariak eta Nafarroako Gobernuo kontseilariak zergatik hitz egiten dute sailez departamentuez ari direnean?

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Mendabiako ureztaketa-eremu osagarriari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Mendabiako ureztaketa-eremu osagarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Ubidearen lehen fasea handitzeko proiektutik zergatik desagertu da Mendabiako ureztaketa-eremu osagarria?

Zertan dira lehen fasea handitzearen lurzati-berrantolamenduak? Zenbat daude bukatu gabe? Zenbat eta zergatik daude geldirik? Zergatik da salbuespena Sesmakoan, zeina departamentuak izapidetzeke dauzkan gainontzeko lurzati-berrantolamenduak baino lehenago bukatu baita?

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan:

Nafarroako Gobernuak 2019ko ekainaren 26an hartutako erabakiaren bidez onetsi zen Nafarroako 2018ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Legearen proiektua. Kontu horien kitapenean –diruzaintzako gerakinaren kalkuluari buruzko atalean– adierazten denez, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 158.143.289,36 eurokoa zen 2018ko abenduaren 31n.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

1.- 2019ko urriaren 1ean zenbatekoa zen gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina?

2.- Gerakin horretatik zenbat diru baliatu da 2019ko urriaren 1era bitarte zor publikoa edo bankuko maileguak aldezturik amortizatzeko? Adierazi, kasuan-kasuan, kontzeptu horietako bakoitzaren zenbatekoa.

3.- Aurrekontuko zer aldaketa egin da 2019ko urriaren 1era bitarte 2018ko abenduaren 31n adierazitako gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura? Adierazi horietako bakoitzaren zenbatekoa.

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Aresoko Eluseder industrialdeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Aresoko Eluseder industrialdeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro

jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Irailaren 24an Nafarroako Gobernuak 15 miloi eurotako finantziazioa onartu zuen zonalde industrial berriei begira. Hau dela eta, Areson dagoen Eluseder industrialdearen inguruan parlamentario honek jakin nahiko luke:

- Zeintzuk izan dira orain arte Nafarroako Gobernuak inplementatutako neurriak eta ekimenak enpresak bertan kokarazteko?

- Zonalde osoaren garapenari begira, bereziki industria arloan, zeintzuk dira aurrera eramango dituen ekimenak?

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru Parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Imarkoingo ordainlekuan bidesaria aldi baterako eteteagatik Audenasari ordaindutako diru-kopuruari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Imarkoingo ordainlekuan bidesaria aldi baterako eteteagatik Audenasari ordaindutako diru-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

“Nafarroako Gobernuaren eta Audenasaren arteko hitzarmena, Imarkoingo ordainlekuan bidesaria aldi baterako etetea” 2019ko uztailaren 31n sinatu zen. Hitzarmenaren laugarren klausulak ezartzen duenez, “hitzarmen indardunak auto-

matikoki aplikatzeagatik uztaileko eta hurrengo hilabeteetako fakturan, Nafarroako Gobernuak Audenasari kalte-ordaina emanen dio –Imarkoingo ordainlekuan egiaz izandako diru-bilketa txikiagoaren zenbatekoaren berdina–, deskontuen merkataritza-politikaren aplikazioagatik konpentsazioarekin batera, hartara bermatuko baitu emakidaren oreka ekonomiko finantzarioa”.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehen: 2019ko uztaileko eta abuztuko fakturretan Audenasari osotara ordaindutako zenbatekoa (egiazko diru-bilketa txikiagoaren eta merkataritza-politikaren zenbatekoa barne).

Bigarrena: 2016ko, 2017ko eta 2018ko uztaileko eta abuztuko fakturretan Audenasari osotara ordaindutako zenbatekoa.

Hirugarrena: “Imarkoingo ordainlekuan 2019ko uztailaren 9tik 2019ko abuztuaren 7ra egiaz izandako diru-bilketa txikiagoa” zehazteko egindako kalkuluaren justifikazioa.

Laugarrena: 2016ko, 2017ko eta 2018ko uztailen eta abuztuan Nafarroako Gobernuak ordaindutako Audenasaren uztaileko eta abuztuko fakturen kopia.

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Zidakos ibaiak 2019ko uztailaren 8an gainezka egitean N-121 errepidean Puiu parean eragindako kalteei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Zidakos ibaiak 2019ko uztailaren 8an gainezka egitean N-121 errepidean Puiu parean eragindako kalteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zidakos ibaiak 2019ko uztailaren 8an gainezka egin zuenean kalte handiak eragin zituen N-121 errepidean, Puiu parean; zehazki, N-121 errepidearen eta Lergako mendatera daraman errepidearen arteko bidegurutzean, El Maño jatetxearen ondoan. Hori dela-eta, parlamentari naizen honek jakin nahi dut ea Foruzaingoak zer informazio darabilen honako hauei buruz:

Lehena. Ea errepidea zer ordutan moztu zen zehatz-mehatz.

Bigarrena. Behin obrak bukatuta, ea zer egunetan eta zer ordutan gaitu zen behin-behineko ibilgailu arinen zirkulazioa N-121 errepideko puntu horretan.

Hirugarrena. Ea zer egunetan eta ordutan hasi ziren pasatzen ibilgailu astunak N-121 errepideko puntu horretatik.

Laugarrena. Bidegurutzearen egoera dela-eta Herrilaren Departamentuarekin eta Nafarroako Gobernuak Audenasan daukan ordezkariarekin izandako komunikazioen zerrenda.

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tafalla-Iruña tartean bidesaria aldi baterako etetearen amaiera jakinarazteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Tafalla-Iruña tartean bidesaria aldi baterako etetearen amaiera jakinarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen honek 9-19/PES-58 espediente-zenbakiarekin egindako idatzizko galderari emandako erantzunean Nafarroako Gobernuak honako hau adierazi zuen: "(...) Nafarroako Gobernuak Audenasari adierazi zion, bertan duen ordezkariaren bidez, abuztuaren 7an –asteazkena–, 00:00etan, bidesaria aldi baterako etetea bukatu behar zela (...)".

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehenena. Komunikazio hori zer formatutan egin zen?

Bigarrenena. Gobernuak Audenasan duen ordezkariari nork agindu zion komunikazio hori egin zezan?

Hirugarrenena. Herrilanen, Foruzaingoaren edo noren txostenetan oinarritu zen erabaki hori?

Laugarrenena. Dokumentazio horren eta erabakiaren oinarrian egon ziren txostenen kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2019ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, europar kastoreak Nafarroako ekosisteman duen eraginari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko galdera, europar kastoreak Nafarroako ekosisteman duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Inguru-meneko kontseilari Itziar Gomez andreari, idatziz erantzun dezan:

Europar kastorea (castor fiber) karraskari erdiakuatiko bat da, iberiar penintsulan orain dela 400 urte inguru desagertu zena bere azala baliatzeke kontrolik gabe ehizatu zelako. 2003an, Alemaniako talde batek legez kontra askatu zituen kastoreak Espainiako zenbait ibaitan.

Azken urteotan gero eta maizago agertu dira Nafarroako ibaietako zuhaitzak –besteak beste, Argako, Aragoiko edo Egako zuhaitzak– kastorek "pikatuta", habiak jartzeko presa txikiak eraikitzeke baliatzen baitituzte.

Beren presekin, bestalde, urmaelak sortzen dituzte, arrainen, anfibioen, narrastien eta era guztietako faunaren eta floraren mesedetan. Onartu beharra dago, gainera, animalia txiki eta graziaz betea dela, begikotasuna eta poztasuna transmititzen duena inondik ere.

Bere legez kontrako presentzia dela-eta, Foru Gobernuak zenbait kanpaina egin zituen iraganean kastorea desagerrarazteko eta akabatzeke; antzuak eta oso garestiak, bidenabar esanda.

Iruñean karraskatutako zuhaitz batzuk moztu behar izan dira, erortzeko arriskua ekiditeko, eta nekazaritzako ustiategiekiko eremuetan –bereziki, ibaiertzen ondoko fruta-arbolekikoetan– kalteak egon dira uztetan.

Kastorearen presentziak, kuriositateaz eta begikotasunaz gainera, zenbait zalantza sortzen ditu.

- Zer eragin du Nafarroako ekosisteman?
- Eraginkorra edo kezkarria al da oihan-masaren balizko galera bati begira?
- Ba al dago ibai-bazterretatik ibili ohi diren oinezkoentzako arriskurik baldin eta kastoreen lanak zigortutako enbor bat erortzen bada?

– Plantea al daiteke kastorea gure ibaietan egotea kastore-kolonia kontrolatzeko kanpaina bat eginuz, kastoreari babestuaren estatusa ematea bezalako neurriak prestatuz, egiten dituzten kalteak arintzeko edo ordaintzeko balio dutenak?

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, 109/2017 Foru Dekretua dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2019ko irailaren 27an emandako epaiek ukituko dituzten oposizio-lehiaketei eta lekualdatze lehiaketei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, 109/2017 Foru Dekretua dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2019ko irailaren 27an emandako epaiek ukituko dituzten oposizio-lehiaketei eta lekualdatze lehiaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2019ko irailaren 27an emandako epaiek ukituko dituzten oposizio-lehiaketetarako eta lekualdatze lehiaketetarako deialdien zerrenda.

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Erronkariko haur eskolarako hezitzaile bat lanaldi erdian kontratatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Erronkariko haur eskolarako hezitzaile bat lanaldi erdian kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan legegintzaldian gogor lan egin zen “Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ibarren egoera sozioekonomikoa aztertzeke Ponentzian”, non biziki inplikatu baitziren talde parlamentarioak nahiz Pirinioetako hautetsiak, elkarteak eta pertsonak. Ponentzia hartatik txosten bat atera zen, Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuena. Txostenean egoeraren diagnostiko bat egin zen eta arlo guztietarako hainbat gomendio eta proposamen egin ziren zerbitzu publikoen prestazioa eta eremuko garapen sozioekonomikoa aldezteko.

Ponentziaren ondorio haietan hezkuntzari buruzko zenbait neurri jaso ziren; horien artean nabarmentzekoa zen, epe motzerako neurri gisa, ratioen malgutzea, halako moduan non lehentasuna ematen baitziztaion familiarik zerbitzurik gabe ez gelditzeari, zeren eta “zerbitzuen eskaintza

Pirinioetako biztanleriaren iraupenerako gakoetako bat da, bai eta bizilagun berrien balizko erakartzeko ere”. Orobat adierazten zen beharrezkoa dela Hezkuntza Departamentuak gogoan har dezan gutxienez iristeko falta diren familien parte bere gain hartzeko aukera, toki entitateek gutxienezko ikasle-kopurua balute bezala beren parte osatu bidenabar.

Gauzak horrela, jakin dugu ezen Erronkariko Oit 3 urtera bitarteko haur-eskolako zerbitzua erabiltzen duten haurren guraso talde bat kezkatuta dagoela ikastetxe horretako langilerien kudeaketan diren zailtasunengatik eta beste hezitzaile bat lanaldi erdian kontratatzeke deialdi eza-gatik.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Ea Nafarroako Gobernuak uste duen, Erronkariko haur-eskolako matrikulazioaren datuak eta Ponentziaren ondorioak ikusita, beste hezitzaile bat kontratatu behar dela lanaldi erdian, haurrei behar bezalako atentzioa emateko.

– Ea Erronkariko Ibarren Batzordeak horri buruzko zer informazio eta beharizan helarazi dion Nafarroako Gobernuari.

– Ea Nafarroako Gobernuak ziur-ziur dakien zaila izanen dela lanaldi erdiko kontratu baterako deialdi batera aurkezteko prest dauden pertsonak aurkitzea.

– Ea Nafarroako Gobernuak hezitzaile bat lanaldi erdian kontratatzeke deialdia egiteko asmorik duen.

– Ea Nafarroako Gobernuak gogoan darabilen Pirinioetako ibarretan ikasturtean zehar ordezkapenak eta balizko kontratazioak egiteko berariazko zerrenda bat egiteko aukera.

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, lehenbiziko kontsultako itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak ezarri asmo dituen neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lehenbiziko kontsultako itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak ezarri asmo dituen neurriei buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko idatzizko galdera dela-eta ("zer neurri ezartzeko asmoa du Osasun Departamentuak lehenbiziko kontsultako itxarote-zerrenda kontrolatze aldera?"), honako informazio hau igortzen dio:

Osasun Departamentuak lanean dihardu bere eskumen-araubideak, arau-esparruak eta giza nahiz diru baliabideen eskuragarritasunak ematen dizkieten aukera ezberdinak abian jartzen, xedeztat duela jarduera arrunta gehitu eta optimiza-

tzea, halatan lehenbiziko kontsultako itxarote-zerrenden gorakadari mugapean eusteko, bai eta egoera nahiz koiuntura bakoitzari egokituriko bestelako jarduera osagarri eta lagungarri batzuk lantzen ere, une oro bideratuak herritarrentzako zerbitzua lehenestera, itxarote-denborak hobetzera eta espezialitate nahiz zentro ezberdinetako zerrendetako pertsonen kopurua murriztera. Jabeturik nolako garrantzia duen faktore eta elementu franko dituen afera baten gaineko ikuspegi orokorra nahiz analisi xehakaturia izateak, Osasun Departamentua lanketa integral bat egiten ari da haren alderdi, eragile, osasungintza-maila eta egiturazko kausa guztiak barne harturik, ekintza global bat gauzatze aldera, plan espezifikoko bat eta guzti, horrela egungo joeran inflexio-puntu bat eragin nahirik eta legegintzaldian zehar hura pixkanaka murrizten dadin lortzeko. Halaxe jakinaraziko da zeure talde parlamentarioak, Navarra Suma-k, eskaturik aurki egiteko den agerraldi parlamentario batean, zeina Parlamentuak urriaren 8rako ezarri baitu bere agendan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

Galdera, N121A errepedeko Sunbillako bidegurutzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, N121A errepedeko Sunbillako bidegurutzeari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 20ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako idatziz erantzuteko galderari buruz (PES-00083), Nafarroako Gobernuak honako informazio hau bidaltzen du.

“N121A errepedeko Sunbillako bidegurutzea egokitzeari eta hura hartzeko eta Sunbillara sartzeko maila desberdineko konponbide bat eraikitze aldera Gobernuak duen konpromisoari buruz,

- Zer epe aurreikusten dira hori egiteko eta erabilgarri uzteko?”

Galderari erantzunez hauxe adierazten da:

N-121-A errepedea 2+1 errepide bihurtzeko proiektuak burutzen ari dira. Gaur egun aurkezturiko alegazio anitzak erantzuteko fasean gara.

Horien artean dago Sunbillako udalak egindako eskaera, hegoaldeko sarbidean maila desberdineko pasabide bat eraikitzeko. Alegazio hori baloratzen ari gara gaur egun.

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

